| | |
|---|---|
| 2025/107 EBAZPENA, Enplegu Publikoko sailburuordearena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko FUNTZIONARIOEN lan-poltsak integratzeko eta berrantolatzeko irizpideak ezartzen dituena. | RESOLUCIÓN 2025/107, de la Viceconsejera de Empleo Público, por la que se establecen los criterios para la integración y reordenación de las bolsas de trabajo de PERSONAL FUNCIONARIO con las que atender las prestaciones de servicio de carácter temporal en la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos. |
| Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileen hautaketa arautzen da. Bertan, 3. eta 4. artikuluek ezartzen dute lan-eskaintza publikoak lan-poltsa handitzeko eta berriak eratzeko tresnak direla. | La Orden de 7 de enero de 2021, de la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno, regula la selección del personal para la prestación de servicios de carácter temporal en la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos. Sus artículos 3 y 4 establecen que las Ofertas públicas de empleo son instrumentos tanto para la ampliación como la constitución de nuevas bolsas de trabajo. |
| Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko maiatzaren 18ko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako kidego eta eskaletan enplegua finkatzeko prozesu bereziak eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuak arautzeko oinarri orokorrak onartzen dira. Bada, agindu horren 19. artikuluak ezartzen duenez, kidego eta eskala bakoitzeko hautaketa-prozesuak amaitzean, dagozkion lan-poltsak berrantolatuko dira, eta enplegua finkatzeko prozesu berezietan onartu diren eta hautatu ez diren izangaiak lan-poltsa horietan sartuko dira. | El artículo 19 de la Orden de 18 de mayo de 2022, de la Consejera de Gobernanza Pública, Administración Digital y Autogobierno, por la que se aprueban las bases generales que han de regir los procesos especiales de consolidación de empleo y los procesos excepcionales de consolidación de empleo en los cuerpos y escalas de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Organismos Autónomos establece que a la finalización de los procesos selectivos de cada cuerpo y escala, se procederá a la reordenación de las bolsas de trabajo correspondientes, a las que se incorporarán las personas aspirantes que hayan resultado aprobadas y no seleccionadas en los procesos especiales de consolidación de empleo. |
| Berrantolaketa hori Enplegu Publikoko Sailburuordetzaren ebazpen bidez zehaztuko diren irizpideen arabera egingo da, langileen ordezkariekin negoziatu ondoren. Bien bitartean, gaur egun dauden lan-poltsen ordenari eutsiko zaio. | Dicha reordenación se llevará a cabo conforme a los criterios que se determinen mediante Resolución de la Viceconsejería de Empleo Pública, previa negociación con la representación del personal, manteniéndose entre tanto en vigor el orden de las bolsas de trabajo actualmente existentes. |
| Langileen ordezkariekin berrantolaketa-irizpideak negoziatu eta eskala bakoitzeko hautaketa-prozesua amaitu ondoren, dagokion lan-poltsa berrantolatuko da, eranskinean ezarritakoaren arabera. | Negociados los criterios de reordenación con la representación de personal y finalizado el proceso selectivo de cada escala, se procederá a reordenar la bolsa correspondiente, de acuerdo a lo establecido en el anexo. |
| Urriaren 29ko 317/2024 Dekretuak -Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoak- 17.g artikuluan, eta, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuaren 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduak –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan aldi | En virtud de la competencia atribuida en el artículo 17.g del Decreto 317/2024, de 29 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno, y, de la Disposición final segunda de la Orden de 7 de enero de 2021, de la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno, regula la selección |

Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la **sede electrónica** mediante el **localizador** indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** bidez **egoitza elektronikoan** egiaztagarria.

| | |
|---|---|
| baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzea arautzen duenak– azken xedapenetako bigarrenean emandako eskumenaren arabera, honako hau | del personal para la prestación de servicios de carácter temporal en la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos, |
| EBATZI DUT: | RESUELVO: |
| *Lehenengo artikulua.*– Finkatze-prozesu bereziak amaitu ondoren funtzionarioen lan-poltsak integratzeko eta berrantolatzeko irizpideak ezartzea. (I. eranskina) | *Artículo primero.* – Establecer los criterios de integración y reordenación de las bolsas de trabajo de personal funcionario tras la finalización de los procesos especiales de consolidación (Anexo I) |
| *Bigarren artikulua.*– Lan-poltsek, lan-poltsen atarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango dituzte ondorioak: www.euskadi.eus/lanpoltsak. | *Artículo segundo.* – Las bolsas de trabajo surtirán efectos desde el día siguiente de su publicación en el portal de bolsas de trabajo: www.euskadi.eus/bolsasdetrabajo. |
| Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Gobernantza Publiko, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. | Contra la presente resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera de Gobernanza Pública, Administración Digital y Autogobierno en el plazo un mes a partir del día siguiente al de su publicación. |
| Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren egunean. | En Vitoria-Gasteiz, a la fecha de la firma electrónica. |
| Enplegu Publikoko sailburuordea,<br>MAITE BERRUETABEÑA ZENAKORTA | Viceconsejera de Función Pública,<br>MAITE BERRUETABEÑA ZENAKORTA |

| I. ERANSKINA. LAN-POLTSEN BERRANTOLAKETA BEHIN FUNTZIONARIOAK FINKATZEKO HAUTAKETA-PROZESUAK AMAITUTA | ANEXO I. REORDENACIÓN DE BOLSAS FINALIZADOS LOS PROCESOS SELECTIVOS DE CONSOLIDACIÓN DE PERSONAL FUNCIONARIO |
|---|---|
| Lehenengoa.- Hautaketa-prozesuaren amaiera.<br>Ebazpen honen ondorioetarako eta oinarri orokorretako 19. paragrafoan xedatutakoa betetzeko, hautaketa prozesuak bi hilabete igaro ondoren amaitzen dira, hautagiak eskala bakoitzeko lanpostuez bigarrenez jabetu zirenetik. | Primero.- Finalización de los procesos selectivos<br>A los efectos de esta Resolución y dar cumplimiento a lo dispuesto en el apartado 19 de las bases generales, se considera que los procesos selectivos finalizan transcurridos dos meses desde la segunda toma de posesión de las personas candidatas en los puestos de cada escala. |
| Bigarrena.- Lan-poltsa osatzen duen pertsonalgoa<br>Eskala bakoitzeko lan-poltsan sartuko dira, baldin eta eskala horretako karrerako funtzionario izatera iritsi ez badira, honako baldintza hauetakoren bat betetzen dutenak:<br><br>1. Eskalako hautaketa-prozesua amaitzen den unean lan-poltsan sartzea.<br><br>2. Eskalako hautaketa-prozesua gainditu izana. Eskala horretan finkatze-prozesu berezi baterako deialdirik egin ez bada, salbuespeneko finkatze-prozesuan 0 puntu edo gehiago lortu dituzten langileak sartuko dira. | Segundo.- Personal integrante en la bolsa<br>Formará parte de la bolsa de cada escala, siempre que no hayan accedido a la condición de personal funcionario de carrera de esa escala, quienes cumplan alguno de los siguientes requisitos:<br><br>1. Integrar la bolsa en el momento que finaliza el proceso selectivo de la escala.<br><br>2. Haber superado el proceso selectivo de la escala. En el supuesto de que no se hubiese convocado un proceso especial de consolidación en esa escala, se integrará el personal que hubiera obtenido una puntuación igual o superior a 0 puntos en el proceso excepcional de consolidación. |
| Hirugarrena.- Lan-poltsako puntuazioa eta Ordena<br>Lan-poltsa bakoitzeko langileak hurrengo ataletako puntuazioen baturaren arabera ordenatuko dira:<br><br>1. Hautaketa-prozesua amaitzean eskalako lan-poltsan lortutako puntuazioagatik (2025eko urriaren 1a). Atal honetako puntuazioa dagoeneko bazirenek eskalako lan-poltsan soilik izango dute. Gainerako kideek 0 puntu izango dute atal honetan.<br><br>2. Eskalaren hautaketa prozesuan lortutako puntuazioagatik:<br><br>a. Finkatzeko hautaketa-prozesu berezia gainditu eta 60,000 puntu lortu dituztenek puntu 1 lortuko dute atal honetan, eta 3 puntu berriz 200,000 puntu lortu dituztenek. Tarteko gainerako puntuazioak hainbanatu egingo dira.<br><br>b. Finkatzeko hautaketa-prozesu berezietarako deialdirik egin ez den eskalen kasuan, salbuespenezko hautaketa-prozesuan 0,000 puntuazioa lortu dutenek 0 puntu lortuko dute, eta aldiz, 3 puntu 100 puntu lortu dutenek. Tarteko gainerako puntuazioak hainbanatu egingo dira. | Tercero.- Puntuación y Orden en la Bolsa<br>El personal integrante de cada bolsa se ordenará por la suma de las puntuaciones de los siguientes apartados:<br><br>1. Por la puntuación alcanzada en la bolsa de la escala en el momento de finalización del proceso selectivo (1 de octubre de 2025). La puntuación en este apartado sólo la tendrán quienes ya pertenecieran a la bolsa de la escala. El resto de integrantes tendrán puntuación 0 en este apartado.<br><br>2. Por la puntuación obtenida en el proceso selectivo de la escala:<br><br>a. Quienes hayan superado el proceso selectivo especial de consolidación y obtenido la puntuación de 60,000 puntos obtendrán en este apartado 1 punto, y 3 puntos quienes hayan obtenido la puntuación de 200,000. El resto de puntuaciones intermedias serán prorrateadas.<br><br>b. En el caso de escalas en las que no se haya convocado procesos selectivos especiales de consolidación, quienes hayan obtenido una puntuación de 0,000 puntos en el proceso selectivo excepcional obtendrán una puntuación 0, y 3 puntos los que obtengan 100 puntos. El resto de puntuaciones intermedias serán prorrateadas. |

| | |
|---|---|
| c. Berdinketa gertatuz gero, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4 a) artikuluan jasotako klausula aplikatu behar da. Hala, berdinketa emakumeen alde hautsiko da deialdiari dagokion kidegoan edo eskalan emakumeen % 40 baino gutxiago dagoenean, salbu eta beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak dituenean –nolanahi ere, ezaugarriok ez dute eragin behar sexuaren ziozko bereizkeriarik–; kasurako, laneratzeko eta lanbide-sustapenerako arazo bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea. | c. En caso de empate, debe aplicarse la cláusula contenida en el artículo 20.4 a) de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de mujeres y hombres.<br><br>Así, el desempate se realizará a favor de la mujer cuando existe una representación inferior al 40% de las mujeres en el Cuerpo o escala correspondiente a la convocatoria, salvo que concurran en el otro candidato motivos que, no siendo discriminatorios por razón de sexo, justifiquen la no aplicación de la medida, como la pertenencia a otros colectivos con especiales dificultades para el acceso y promoción en el empleo. |
| Berdinketa hausteko hurrengo irizpidea proba teoriko-praktikoan (B zatia) lortutako puntuazioa da, proba horretan puntuazio handienetik txikienera ordenatuta. | El siguiente criterio de desempate es la puntuación obtenida en la prueba teórico-práctico (parte B), ordenados de mayor a menor puntuación en esa prueba. |
| Berdinketa gertatuz gero, hizkuntza-eskakizuna erabiliko da, hizkuntza-eskakizun handienetik txikienera ordenatuta. | En caso de empate, se usará el perfil lingüístico, ordenados de mayor a menor perfil. |
| Berdinketak bere horretan badirau, berdinketa hausteko hurrengo irizpidea Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2024ko urriaren 24eko Ebazpenean argitaratutako letra izango da. Ebazpen horren bidez, argitara ematen da 2025-2026 ikasturtean ordezkapenak egiteko hautagaiak kudeatzeko prozesuan hurrenkera alfabetikoa zehaztuko duen letraren zozketaren emaitza, bai eta ikasturte horretan dei daitekeen beste edozein hautaketa-prozesutan ere. Zozketaren emaitza "R" letra da. Irizpide hori alfabeto-hurrenkeran aplikatuko da lehenengo abizenarekin, bigarren abizenarekin berdinketak jarraitzen badu, eta, azkenik, izenarekin. | De mantenerse el empate, el siguiente criterio de desempate será la letra publicada en Resolución de 23 de octubre de 2024, del Director de Gestión de Personal, por la que se hace público el resultado del sorteo de la letra que determinará el orden alfabético en el proceso de gestión de candidatas y candidatos a sustituciones durante el curso escolar 2025-2026, así como en cualquier otro proceso selectivo que pueda convocarse a lo largo de dicho curso escolar, así como en cualquier otro proceso selectivo que pueda convocarse a lo largo de dicho curso escolar. El resultado del sorteo es la letra “R”. Este criterio se aplicará por orden alfabético en primer lugar con el primer apellido, de persistir el empate con el segundo apellido y por último con el nombre. |
| Laugarrena.- Lan-poltsa osatzen duten langileen egoerak eta lehentasunak<br>1. Lan-poltsan dauden langileek ezarrita dituzten egoerari eta lehentasunei eutsiko diete. | Cuarto.- Situaciones y preferencias del personal que integra la bolsa<br>1. El personal que ya estuviera en la bolsa mantendrá la situación y preferencias que tiene establecidas. |
| 2. Lan-poltsan lehen aldiz sartzen diren langileak lanerako prest egongo dira, eta lehenespenez honako aukera hauek izango dituzte:<br>- Edozein prestazio-modalitate<br>- Edozein lanaldi<br>- Edozein ordutegi<br>- Edozein eremu geografiko | 2. El personal que se integra por primera vez en la bolsa lo hará en situación de disponible, y tendrá determinadas por defecto las siguientes opciones:<br>- Cualquier modalidad de prestación<br>- Cualquier jornada<br>- Cualquier horario<br>- Cualquier zona geográfica |
| 3. Lanerako prest egoeraren aldaketa eta ebazpen honetan lehenetsita ezarritako lehentasunak aldatu ahal izango dituzte interesdunek, Lan-poltsen Atariaren bidez, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduan aurreikusitakoaren arabera. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde | 3. El cambio de situación de disponibilidad y las preferencias establecidas por defecto en la presente resolución podrán ser modificadas por la personas interesadas a través del Portal de Bolsas de Trabajo, de conformidad con lo previsto en la Orden de 7 de enero de 2021, de la Consejera de Gobernanza Pública, y Autogobierno, por la que se regula la selección del |

| | |
|---|---|
| autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileen hautaketa arautzen da. | personal para la prestación de servicios de carácter temporal en la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos. |
| 4. Aldaketek ondorioak izango dituzte egin eta hurrengo egunetik aurrera. | 4. Los cambios surtirán efectos a partir del día siguiente al que se efectúen. |
| Bosgarrena.- Zigorrak eta desgaitasuna duten pertsonentzako kupoa<br>1. Poltsako langileen penalizazioetarako zenbaketari eutsiko zaio. | Quinto.- Penalizaciones y cupo para personas con discapacidad<br>1. Se mantiene el cómputo para las penalizaciones del personal integrante de la bolsa. |
| 2. Penalizazioagatik lanerako prest ez egotea mantentzen da, eta horrek poltsari edo edozein poltsari eragiten dio. | 2. Se mantiene la situación de no disponible por penalización, que afecta a la bolsa o a cualquier bolsa. |
| 3. Desgaitasuna duten pertsonak kontratatzeko, langile guztien % 2raino iristen ez direnean, 12 hilabetetik gorako iraupena duten 14 lanpostutik 1en kupoari eutsiko zaio. | *3.* Se iniciará el conteo para el computo del cupo de 1 de cada 14 plazas de duración mayor de 12 meses, cuando no se alcance el 2% de personas con dicapacidad sobre el total de efectivos. |
| Seigarrena.- Publikotasuna<br>Berrantolatutako lan-poltsak osatzen dituzten langileen zerrenda eranskinaren lehenengo atalean adierazitako 2 hilabeteko gehieneko epean argitaratuko da. | Sexto.- Publicidad<br>El listado de personal integrante de las bolsas de trabajo reordenadas se publicará en el plazo máximo de 2 meses indicado en el apartado primero del anexo. |
| Argitalpena Lan Poltsen Atarian egingo da, eta egoitza elektronikoaren eta helbide honen bidez egin daiteke: www.euskadi.eus/lanpoltsak. | La publicación se realizará en el Portal de Bolsas de Trabajo, al que se puede acceder a través de la sede electrónica y de la siguiente dirección: www.euskadi.eus/bolsasdetrabajo. |
| Lan-poltsa lehen aldiz osatzen duten langileek sms bat jasoko dute esteka batekin, eta bertan jakinaraziko zaie Autonomía Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako lan-poltsetako kide direla, zein dek araudi erregulatzailea dituzten eta zer izapide egin behar duten lan-eskaintzak jasotzen hasteko. | El personal que integre la bolsa por primera vez recibirá un sms con un enlace en el que se le informará que forma parte de las bolsas de la Administración General de la Comunidad Autónoma y sus Organismos Autónomos, de la normativa que las regula, y los trámites para empezar a recibir ofertas de trabajo que desea. |